

**BILBOKO MERKATARITZAN, OSTALARITZAN, JATETXEETAN, TURISMOAN ETA KULTURAN
ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK (BILBOKO UDALAREN BILBAO AURRERA PLANAREN ESPARRUAN)****1.- ZIOEN AZALPENA**

Bilbao Ekintza EPEL erakundea (aurrerantzean Bilbao Ekintza) Bilborentzako ekonomia- eta gizarte-aberastasuna sortzea sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du, inbertitzeko leku erakargarri gisa, eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen lagunduz. Besteak beste, hiriaren nazioarteko turismo-kokapena eta- sustapena bultzatu nahi ditu, kulturari eta aisialdiari lotutako lekua izan dadin, eta horrela hiribildua dinamizatzeko eta aberastasuna sortzeko.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, gure errealitateak ez du inolako zerikusirik lehen genuenarekin, eta ekonomia-jarduera eten da. Hori dela eta, jarduketa koordinatua egin beharra dago, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi honen ondorioei aurre egiteko.

Bilboko Udalak, COVID-19ak eragindako egoera ikusita, BILBAO AURRERA Plana onetsi zuen 2020ko maiatzaren 8an. Gizarte Kohesiorako eta Ekonomia, Enplegua eta Kultura Suspertzeko Neurrien Bilboko Plana da, eta 15 milioi euroko aurrekontua du. Anbizio handiko plan bat da, eta larrialdietarako premiazko 50 neurri baino gehiago barne hartzen ditu, lehenengo, COVID-19ak Bilboko enpresa eta pertsonengan izan duen eraginaren larritasuna arintzeko eta, ondoren, berraktibatu eta suspertzeko. Honako hauei dago zuzenduta, batik bat: tokiko merkataritza txikia eta ostalaritza zein jatetxeak, turismoa eta sormen- zein kultura-industriak.

Ekonomiaren eta enpleguaren aldeko eta kultura babesteko neurrien artean, BILBAO AURRERA Planak Bilbon zuzeneko kontsumoa sustatzeko programa bat du, BILBOKO BONUEN bitartez, zeina eragin handiena pairatu duten sektoreei begira gauzatu den.

Azaldutakoa aintzat hartuta, Bilbao Ekintza EPELen Administrazio Kontseiluak, 2020ko azaroaren 6ko saioan, "BILBOKO BONUAK" izeneko erosketa-bonuen sistema arautzeko programa onetsi zuen, udalerriko merkataritza, ostalaritza, kultura eta turismoaren jarduera bultzatzeko asmoz.

2. PROGRAMAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Programa honen helburua "BILBOKO BONUAK" izeneko bonu-sistema bat sortzea da, herritarrek Bilboko establezimenduetan eros dezaten bultzatzeko asmoz; hau da, **kontsumitzaileak bonuak erosi behar ditu** eta, horri esker, udalerriko **merkataritza, ostalaritza eta turismo sektoreei** suspertzen lagunduko zaie.

Hori horrela, Bilbao Ekintzak, programa honen bitartez hirian zuzenean kontsumitzea sustatu nahi du, pandemiaren ondorioz kaltetuen dauden sektoreetan ekonomia eta enplegua suspertzen laguntzea eta Bilbo hiri bizi eta dinamikoa izatea lortzeko.

3.- ONURADUNAK

Programa honen onuradunak izango dira Bilboko Udalak, Bilbao Ekintzaren bitartez eta ezarritako bitarteko zein bideen bidez, salgai jarriko dituen bonuren bat eskuratzen duten 18 urtetik gora pertsona fisikoak.

Bonuen banaketa egiteko, NAN edo atzerriko identifikazio-zenbakiari lotuta egongo dira; beraz, zenbaki bakoitzarekin, guztira, 20 bonu eskuratu ahal izango dira

Bonuak eskuratzen dituzten pertsonak jarraian adierazitako zenbatekoa ordainduko dute bonu-mota bakoitzerako, eta Bilbao Ekintzaren ekarpena izango da dirulaguntza hori, itzuli beharrik gabekoa.

Herritarrek ordaindutako zenbatekoaren eta Bilbao Ekintzak egindako ekarpenaren batura izango da bonuaren balio faziala (balio osoa).

4.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK ETA BONU-MOTAK

Bilbon zuzeneko kontsumoa sustatzeko BILBOKO BONUak izeneko programan lau motatako bonuak eskainiko dira.

- **1. MOTA** Merkataritzako Bilbo bonua
- **2. MOTA** Ostalaritzako eta Jatetxeetako bonua
- **3. MOTA** Bilboko Turismo Bonua, bi modalitaterekin:
 - **3.A** Ostatuetarako turismo-bonua
 - **3.B** Interes turistikoko jardueretarako bonu turistikoa
- **4. MOTA** Bilboko Kultura Bonua, bi modalitatetan banatuta (A eta B), zenbatekoaren arabera.

Oinarri hauetan xedatutako ondorioetarako, diruz lagundutako gastuak izango dira bonuen modalitateei aplikatzen zaizkien hobari guztiak, honako honekin bat etorritz:

BONU-MOTAK		BONUAREN PREZIOA	UDALAREN EKARPENAK	BONUAREN BALIO OSOA (FAZIALA)
1. MOTA		15,00 euro	15,00 euro	30,00 euro
2. MOTA		10,00 euro	10,00 euro	20,00 euro
3. MOTA	3.A	30,00 euro	30,00 euro	60,00 euro
	3.B	15,00 euro	15,00 euro	30,00 euro
4. MOTA	4.A	10,00 euro	10,00 euro	20,00 euro

	4.B	20,00 euro	20,00 euro	40,00 euro
--	------------	------------	------------	------------

5. FINANTZAKETA

Bonua finantzatzeko gehieneko kreditua 2.375.456 eurokoa da, eta honela banatuko dira kopuruak:

BONU-MOTAK		GEHIENEO KREDITUA
1. MOTA		730.910,00 euro
2. MOTA		913.637,00 euro
3. MOTA	3.A	232.977,00 euro
	3.B	41.114,00 euro
4. MOTA		456.818,00 euro

1. eta 2. MOTAKO (merkataritza eta ostalaritza-jatetxeak) bonuetarako ezarritako zenbatekoa banaketa proportzionalaren irizpidearekin banatuko da, Bilbon dauden establezimendu guzti-guztiak ikusita, barruti bakoitzean dauden establezimenduen kopurua kontuan hartuta. Honela, hain zuzen ere:

1. MOTAKO BONUA Merkataritza-bonua

BILBOKO BARRUTIAK	AUZOAK	Proportzioak
ABANDO	Abando, Indautxu.	% 31,0
BASURTO-ZORROTZA	Basurto, Olabeaga, Masustegi-Mintegitxueta, Altamira, Zorrotza	% 8,0
BEGOÑA	Begoña, Santutxu, Bolueta.	% 10,0
DEUSTU	San Inazio-Elorrieta, Ibarrekolanda, Deustuko San Pedro-Erribera eta Arangoiti	% 12,0
IBAIONDO	Alde Zaharra, Iturralde, Solokoetxe, Atxuri, La Peña, Bilbo Zaharra, San Frantsizko, Zabala, San Adrian, Miribilla	% 21,0
OTXARKOAGA-TXURDINAGA	Otxarkoaga, Txurdinaga.	% 3,0
ERREKALDE	Amezola, Iralabarri, Rekaldeberri-Larraskitu, Uretamendi, Iturrigorri-Peñascal	% 9,0

URIBARRI	Castaños, Matiko-Loruri Etxaldea, Uribarri, Zurbaran-Arabella	% 6,0
----------	---	-------

2. MOTAKO BONUA Ostalaritza-bonua

BILBOKO BARRUTIAK	AUZOAK	Proporazioak
ABANDO	Abando, Indautxu.	% 35,0
BASURTO-ZORROTZA	Basurto, Olabeaga, Masustegi-Mintegitxueta, Altamira, Zorrotza	% 7,0
BEGOÑA	Begoña, Santutxu, Bolueta.	% 9,0
DEUSTU	San Inazio-Elorrieta, Ibarrekolanda, Deustuko San Pedro-Erribera eta Arangoiti	% 10,0
IBAIONDO	Alde Zaharra, Iturralde, Solokoetxe, Atxuri, La Peña, Bilbo Zaharra, San Frantsisko, Zabala, San Adrian, Miribilla	% 21,0
OTXARKOAGA-TXURDINAGA	Otxarkoaga, Txurdinaga.	% 3,0
ERREKALDE	Amezola, Iralabarri, Rekaldeberri-Larraskitu, Uretamendi, Iturigorri-Peñascal	% 9,0
URIBARRI	Castaños, Matiko-Loruri Etxaldea, Uribarri, Zurbaran-Arabella	% 6,0

Dena den, programak iraun bitartean, Bilbao Ekintzak aipatutako proportzioak aldatu ahal izango ditu hala egitea gomendatzen duten interes publikoko arrazoi justifikatuak baldin badaude.

6. PROGRAMAREN IRAUPENA

Onuradunek programa hasten denetik aurrera erosi ahal izango dituzte bonuak, eta 2021eko martxoaren 31ra arte.

Herritarrek erosteko bonuei dagokienez, egoera epidemiologiko honen bilakaeraren ondorioz Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hartzen dituen neurrien arabera egin da, bai

eta programa ondo garatzea eragin dezaketen edo programarekin lortu nahi diren xedeak hobeto lotzeko balio duten beste edozein neurriren arabera ere.

Beste alde batetik, gastua 2021eko apirilaren 30a baino lehen egin beharko da, gehienez, eta ez da diruz lagunduko egun horretatik aurrera egindako erosketarik. Datari dagokionez, dagokion tiketean/fakturan jasotakoa beteko da, eta ez da onartuko ondorengo fakturarik.

Hala eta guztiz ere, Bilbao Ekintzak programaren iraunaldia luzatu ahal izango du hala egitea gomendatzen duten interes publikoko arrazoi justifikatuak baldin badaude.

7. ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA:

Atxikitako entitateak

Edozein pertsona fisikorik edo juridikorik kanpaina honekin bat egiten duela joko da, baldin eta haren enpresa-jarduera merkataritza, kultura, ostalaritza edo turismoaren sektorean sartzen bada eta jendearentzat zabalik dagoen establezimendu bat badu Bilboko hiribilduan. Dokumentu honen I. eranskinean jasotako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda egon beharko da jarduera.

Salbuespen gisa, aipatutako eranskinean jaso ez diren beste talde edo epigrafe batzuetan dauden enpresek parte hartu ahal izango dute, betiere, Bilbao Ekintzak uste badu enpresa horien ezaugarriak programa honen izaera eta helburuekin bat datozela.

Era berean, honako hauek ere kanpaina honekin bat egin ahal izango dute: Bizkaiko Lurralde Historikoko Artisauen Erregistroan izena emanda duten artisauak, baldin eta helbidea Bilbon badute edo programa honek iraun bitartean Bilbon garatzen den artisauen elkargo profesionalak antolatutako artisautza-azoka batean parte hartzen badute.

Baldintza hori beteko dute programaren oinarriak betetzen dituzten enpresek eta dokumentu honen I. eranskinean zehaztu diren eta oinarri hauek argitaratu baino lehen normalean Bilbon lan egiten duten bitartekaritza, turismo-gidari eta turismo aktiboko jardueren turismo-enpresek.

Programa honi atxikitako erakunde horiek erakunde laguntzailetzat hartuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, eta aplikatzekoa izango zaie arau horretan dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa.

Kanpainan parte hartzeko prozedura.

Kanpainan parte hartzeko, atxikitzeko eskaera egin beharko du entitate edo establezimenduak. Eskaerak, inprimaki elektronikoaren ereduarekin bat etorriz, Bilbao Ekintzak programarako garatu duen plataforma elektroniko honen bitartez aurkeztu ahal izango dira: www.bonobilbao.eus

Atxikitzeko eskaerarekin batera, deialdi honen II. eranskinean zehaztutako dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osatu gabe badago, erakunde interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badituzte, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera emango den ebazpenaren ondoren.

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, bonuen kanpainan parte hartzeko onartua edo baztertua izan den jakinaraziko zaio entitateari, emandako helbide elektronikoaren bitartez.

Beste erakunde batzuen kanpainetan parte hartzen duten entitate edo establezimenduek, baimena eman badute, programa honetan parte hartu ahal izango

dute, betiere, bertan ezarritako baldintzak onartzen badituzte eta deialdi honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten badute. Beraz, eskaera aurkeztetik salbuetsita egongo dira, apartatu honetan adierazitako baldintzetan, 53. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 1. d) artikulua.

Kanpainan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea.

Establezimendu eta enpresak oinarri hauek BAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera atxiki ahal izango dira. Atxikitzeko eskabideak aurkezteko epea programak iraun bitartean egongo da irekita.

8. BONUAK ERABILTZeko BALDINTZAK ETA EZAUGARRIAK

Bonuak eskuratzea:

Herritarrek modu digitalean eskuratu ahal izango dituzte bonuak, Bilbao Ekintzak horretarako prestatu duen web-plataformaren bitartez. Hementxe dago esteka: www.bonobilbao.eus. Gainera, programari lotutako banku-entitatearen kutxazain hauetan eskuratu ahal izango dira: <https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/eu/negozioak/bulegoak-eta-kutxazainak>

Bonuak eskuratzen diren unean ordaindu beharko dira, eta, horretarako, kreditu- edo zordunketa-txartelaren bitartez egingo da, bai eta aipatutako entitatearen ordainketa-pasabideak onartzen duen beste edozein ordainketa elektronikoren bitartez ere.

Bonuak programak iraun bitartean erosi ahal izango dira, eta, betiere, finantzatzeko kreditu nahikoa dagoenean.

Bonuak trukitzea

Kanpainari atxikitako entitateen establezimenduetan trukatu dira bonuak. Eguneratutako zerrenda webgunean argitaratuko da: www.bonobilbao.eus

1. eta 2. MOTAKO bonuak (merkataritza eta ostalaritza-jatetxeak) eskuratzeko orduan aukeratutako barrutiko establezimendu atxikietan baino ezin izango dira trukatu.

Erabiltzaileak bonuaren QR kodea aurkeztu beharko du edo, bestela, erosketa egingo duen establezimenduan inprimatutako bonuak aurkeztu.

Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuarena berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa edo kontsumizio bakoitzean oso-osorik agortzeko modukoa.

Edonola ere, ezin izango da dirua eskudirutan itzuli, ez erosketa egiterakoan, ez eta beranduago eskuratutako produktua itzultzea erabakitzen bada ere.

Erosketa-tiket bakoitzeko, gehienez ere, BILBOKO BONUen lau ale erabili ahal izango dira.

BILBOKO BONUAK beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten beste bonu batzuekin izango dira bateragarriak; beraz, tiket bakarreko erosketan pilatu ahal izango dira.

Edonola ere, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du, inolaz ere, diruz lagunduko den erosketaren balioa gaintu, dirulaguntza hori bakarrik erabilita zein beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk kontuan hartuta.

Muga

Bonu mota/azpimota bakoitzeko muga 200 unitatekoa izango da establezimendu bakoitzeko. Muga hori handitu beharko da, baldin eta eskariaren egoerak hala eskatzen badu, bonuen kopuru handiagoa banatu behar bada.

4. motako bonuen kasuan (Kultura bonuak), 30.000,00 euroko muga ezarri da establezimendu bakoitzeko.

Bonuak udalarekin likidatzeko modua

Likidatzeko orduan, atxikitako entitateak plataformaren bitartez erregistratu beharko dituzte bonuak eta dagokien salmentaren tiketa edo faktura.

Udalak, Bilbao Ekintzaren bitartez eta hamabost egunetik behin, une horretara arte aurkeztutako bonuei dagokien zenbatekoari itzuliko die establezimenduari. Horretarako, banku-transferentzia bat egingo du emandako kontu zenbakira.

Bilbao Ekintzak ziurtagiriak laginketa-tekniken bitartez egiaztatuko ditu bonuak modu egokian aplikatzen ari direla jakiteko arrazoizko froga lortzeko. Horretarako, atxikitako entitateari aipatutako ziurtagiriak bidaltzeko eskatuko dio.

9. ZERBITZUAREN ERABILTZAILA DIREN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**Onuradunen eskubideak eta betebeharrak**

Bonuak erosten dituen unean, kontsumitzaileak dokumentu honetan jasotako kanpainaren baldintzak onartzen ditu.

Onuradunek bonua eskuratzen duten unean ordainduko dute zenbatekoa, baina adierazitako eguna baino lehen trukatu ahal izango dute atxikitako enpresa eta establezimenduetan.

Atxikitako establezimenduen eskubideak eta betebeharrak.

Establezimendu batek bonuen kanpainarekin bat egiten badu, oinarriak onartu dituela joko da, bai eta oinarrietan ezarritako konpromisoak bere gain hartzen dituela ere. Hori dela eta, Bilbao Ekintzak egiten dituen egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak

onartuko ditu, eta horiek egin ahal izateko eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuko du.

Atxikitako pertsonak kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartuko dute, bai eta programa iragartzeko materialak hartzeko eta establezimenduan, ondo ikusteko moduko leku batean, jartzeko konpromisoa ere. Hori guztia deialdi honetan adierazitako bonuen mugara iristen direnean kendu beharko dute establezimenduek.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketa ordaintzeko ordezkotik gisa, erosketak osorik edo zati batean ordaintzeko, eta une oro errespetatu beharko ditu bezeroari tratatzeko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak. Hori horrela, programa indarrean dagoen bitartean, ezin izango da bonuaren programa ezkutatu edo bonua erabiltzeko eskubidea ukatu.

Atxikitako entitateek bonuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko dute, eta haiek izango dira Bilbao Ekintzaren aurrean bonua baliogarria izateko beharrezkoak diren zenbatekoen erosketatik edo -faktura egiaztatzeko eta justifikatzeko arduradunak.

BILBOKO BONUAREN balioaren eta erosketaren zenbatekoaren arteko aldea ez zaie, inola ere, erabiltzaileei eskudirutan itzuliko, ez erosketak egiten den unean, ez eskuratutako produktua beranduago itzultzen bada.

Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, entitatea baino ez da izango bonua ondo kudeatzearen arduraduna, eta salmentaren tiket edo faktura egokiarekin batera erregistratu beharko du plataforma elektronikoaren bitartez, udalean ondo likidatu dadin.

10.- INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, funtsezko aldaketarik ez dakarren kasuetan, Bilbao Ekintza EPELeren Zuzendaritzari emango zaio aldaketa horiek egiteko eskumena. Alabaina, Administrazio Kontseiluari emango dio horren berri, aldaketen ostean egiten den lehenengo bileran.

11. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA:

Oinarri hauetan xedatutakoaz gain, honako hau bete beharko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO).
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako dirulaguntzei buruzkoa;
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. titulua.
- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.